

EUSKARAZKO KULTURAREN GEROA EUROPA BERRIAREN TENOREAN*

Jokin Apalategi

Filosofi eta Psikologi Fakultateko Irakaslea

Gure belaunaldiak euskarazko kulturaren alde daraman borrokak Estatu nazioaren sorrerako hizkuntz politikaren filosofia du azken erreferentziatzat. Estatu-nazio horrek, berriz, sorrera demokratikoak izanik, harrigarri badirudi ere, hizkuntz politikan filosofia autoritarioa defenditu izan du beti. Eta gertakizun honek garrantzi handia du demokratiko erreferentzia demokratikoen barrenetik hizkuntz politika hori kontestatzen beharturik gaudenontzat. Bere legearekin mugan, amore ematerik ausartena eginaz, gaurko Estatu espainoleko nazioaren Konstituzioa, "espainola" ez diren hizkuntza batzu eskubidezkat onartzera ailegatu denean ere, ez bait da hizkuntz politikaren filosofia autoritario hori gainditzen, nahiz eta horren irudia saltzen entseiatu eta gure arteko zenbait inoxente siniste horretan erori. Are gehiago, Europa berriaren (Estatu-nazio Elkartuen) hizkuntz politikaren proiektuan lehen filosofia hura zilipurdikatzen bada ere, hizkuntz politika harekin eragindako desmasiak erreparatzeko asmorik ez denez ageri, euskarazko kulturaren geroa, traba berrietan sarturik aurkitzen da. Aterabideak? Jokabide nagusiak taiutuko ditugu.

Ondoko lerroetan telegrama moduko gure arrazoi hauen bilduma detenimenduz azaltzen entseiatuko naiz. Goazen langintzara!

* Testu hau Durangoko XXVI. Liburu eta Disko Azokan, 1991eko abenduaren 5ean, Sarrerako Hitzaldi bezala irakurri zen.

Estatu nazioa eta euskarazko kultura

Estatu-nazioaren sorrerako hizkuntz politikaren filosofia Frantziako Iraultzarekin gauzatzen da, gero arrazoiaren azken inbentzio bezala mundu guztira esportatzeko. Eta Arrazoi nola arrazoitzen da? Bi neurri desberdinekin giza-gizarte fenomenoen arabera.

Arrazoiak konkreto eta historikoarekin operatzen duenez, horren aldian aldizko balioaz galdezkatzen da. Ekonomia, politika, erlijioa alorreko desberdintasunei "pluralitatea" eskainiz ihardesten zaie. Antzinako erregimenetik zetozen gatazka nagusiak kontsentsuz erabakitzen dira: burges komertzianta eta produktoreentzat lurlangintzako aristokraziaren kontsentimendua dago, hots, "laissez faire"; erlijiozko protestalarientzat, katolikoek etsipenezko ezagutza dago, ateo eta agnostikoen gorakadaren eraginaz; politikoentzat, alderdien onarpena dago, Erregetza absolutuaren bakartasuna ordezkatzen delarik.

Baina, hizkuntza, kultura, tradizio administratibo-juridikoetan uniformitatea edo berdintasuna erabakitzen dira. Kontrakoa, pribilegioen atxekitzea omen litzateke. Arrazoitzeko molde bitxia, noski! Zergatik ikusten dira pribilegioak alor hauetan bakarrik? Ekonomia, politika edo erlijio alorretan pluralitatea onartzeak beste hainbat ez al zuen suposatzen pribilegioak atxekitzen jarraitzeko?

Hizkuntza bakarraren filosofia berezitasun handiz defenditzen zaigu. Estatu-nazioaren ideologo nagusi den Grégoire apezak honela dio: "je crois avoir établi que l'unité de l'idiome est une partie intégrante de la révolution" (uste dut argi eta garbi dagoela hizkuntza bakarraren aukera iraultzaren parte osagarri dela).¹ Aurrez aipaturiko pribilegioen atxekimenduko arrazoi akusatzaile horrezaz gain, positiboki defenditzen ere entseiatzen da. Baina, orduan, hizkuntza bakarraren defentsa hori arrazoi estralinguistikoekin egiten da, hots, argudio ekonomiko eta sozialen bidez: "dans l'étendue de la nation, tant de jargons sont autant de barrières qui gênent les mouvements du commerce et atténuent les relations sociales" (nazioren lurralde zabalean hainbat hizkuntza mordoilo egotea merkatal iharduera oztopatu eta harreman sozialak ahultzeko hesiak onartzea da).² Halere, ezaguna da, apez beraren garaian egindako inkesta batek, hamabi milioi bakarrik zirela frantsesek zekitenak, agertzen zuela. Demokraziaren eta Arrazoiaren hizkuntza ematearen izenean, ordea, jendeei, inolako pietaterik gabe, frantsesa inposatzen zaie. Frantziako Estatuan garai horretan bizirik dirauten gainerako hogeitamazazpi hizkuntza-dialektoei erasotzeko agindua ematen da. Eta agindu horrek beti dirau.

Baina, entzuleren batek ihardets diezadake, hori duela bi mendeko pentsakera eta portaera izan zen. Ez gaitezen igaroan amildu.

Begirada altxa dezagun, igarora ahantziz etorkizuna adiskidetasunean has dezagun. Nahi genuke! Hori da gure eskaria. Baina, eurek ez digute amorerik ematen. Besteak beste, ikus igaro egunetan Iparraldeko Amaia eta Xan euskaltzaleei zer errana izan zaien Pabeko frantses jujeen bidez, "ez dugu onartzen zuen defentsa euskaraz egin dezazuten, hizkuntza hori Frantses Errepublikan "ofiziala" ez delako". Euskarak ez du askatasunik, are gutiago berdintasunik hori horrelakotzen duen Konstituzioak iraunen dueno. Estatu-nazioaren hizkuntz politika aipaturiko filosofia fundatzaile mugatuko deno aldizka debekatuta eta beti marginatuta gertatuko bait da euskara.

Autonomi estatutua eta euskarazko kultura

Puntu honetan ihardespren berri bat ere jaso nezake: Frantses Errepublikan, beharbada bai, baina, Espainiako demokrazian autonomi estatutuen bidez egon den euskararen "ofizialtzeak" guzti hori gainditua du. Are, objektzio hori jarri didanari bere alde duela aurrez aipaturiko frantses juje horien aburua erranen diot. Izan ere, Amaia eta Xanekin batera, tribunal beraren aitzinean eta gorabehera berberetatik epaitzen zen Txatarras izeneko Hegoaldeko euskaldunari, euskaraz bere defentsa egiteko baimena luzatu bait zioten bere hiritartasun-agiria babesten duen Espainia Estatu Konstituzioak euskara "ofiziala" deklaratzeko. Baina, egia al da euskararen "ofizialtze" horrek Estatu-nazioaren

hizkuntz politikan dagoen filosofia fundatzailea ezabatu duela, ala eta beste zerbait da guzti hori?

Izan ere euskaldun anitz da gaur, arrazoitze hau hala-hala irentsiz, euskararen egungo malurak eta galerak euskaldunon utzikeriaren, ahuleziaren, nahiezaren, etabar banako eskasien bizkar ematen duenik. Gaur egun ere, gure artean moda-modan dago, eta ez dut honekin egin behar ez denik erran nahi, euskararen arloko euskaldunen portaerak estatistikatzeko eta horren ondorioz morala egiten ihardutea. Ikusi euskara dakigunok guti bagara, jakinaz gero dugun portaerak zenbat gehiago ahultzen gaituen. Bestela balitz, beti euskaraz elkarri egiten bagenio ez legoke etsipenerako arrazoirik, aurrerakada baizik. Gure banako portaeraren esku dago bada, gaur egun euskarak aurrera ala atzera egin dezan. Egia al da arrazonamendu hau?

Inola ere ez! Zergatik?

Ez noa banako portaeren ikerketan agertzen dena ukatzera. Are guzti hori horrela dela aitortzera baizik gezurtatu behar dut. Eginkizun honi gure euskarazko kulturaren etorkizunerako hil ala bizikoa bait deritzot.

Gure ez-axolaz gain beste oztoporik ez ote dago euskarazko kultura bilakatzen joan dadin eta etorkizuna ziurtaturik ukan dezan? Beste gisa batez galdera pausatutik, gaur egun euskarazko kulturarentzat dagoen onarketa kolektiboa eta bere ondoriozko egokitze erakundetiarrak edozein Estatu-nazioaren hizkuntzarentzat bezalakoak direla erran al dezakegu?

Egia da Espainol Estatu-nazioak autonomi estatutuak onartzearekin hizkuntz politikan aldaketa bat eragin duela. Halere, Estatu-nazioaren hizkuntz politikaren filosofia fundatzailea baztertu izan denik ondoriozta al dezakegu? Inola ere ez! Lehen euskararentzat heriotza bortitzaren espektakulua jende aurrean erreprezentatzea onartzen zen. Arrazoiaren izenean euskarak ez zuela bizitzeko arrazoirik erranez, euskaldunarentzat zigorra legetuaz jazarpina eragiten bait zen. Orain aldiz, euskarak arnasa hartzen jarrai dezakeela onartzen denean, iraupena ukan dezan beharrezko duen janaritza oztopatzen zaio. Janaritua ez izanaren ondorioz arnasa hartzea amaitzen bazaio berriz, guk ez diogu arnasarik kendu erraten zaigu. Adibide batekin egoera historiko hau deskribatuko dugu. Gaur egun, jakina denez, Euskal Herrian euskaraz egiteko eskubidea du gura duen edonorrek. Halere, orainokoan, azpimarra dezagun, banakoaren alorreko eskubidean gaude. Erran nahi baita, aurreko erregimenean ez bezala nornahik duela bere etxetik at, kalean bezala lantegian edo komertzioan euskaraz mintzatzeko eta itauntzeko eskubidea. Besterik da, ordea, itaunduak itauntzaileari erantzunik emanen dion ala ez. Baldin euskararik badaki, ziurrenik bai, eta gogoz gainera, ez bait dago gaizki ikusita euskaraz egitea. Baina ez badaki, "ez dakit" lehor-lehor, ala eta "barkatu baina ez dakit" edo eta "ikasten ari naiz", erantzun diezaioke. Honerarteko guztia onargarria da. Arrazoiak trumoika bait dira norbaitek gaurko Euskal Herrian euskara ez jakiteko. Eta gehienez inor pribaturi

ezin zaio errealtate horren errurik aurpegiratu.

Itaun-egilea, ordea, instituzio publikoen zerbitzu batera hurbiltzen bada, eta euskaraz egiten badu, herriko-etxean, ikastetxean, Foru Aldundian, Eusko Jaurlaritzan etabar.etan, ez al ditu aurrez aipaturiko erantzun bertsuak jasoko? Tamalez, bai! Gehienez ez dakit! Eta hau ez al da euskararen ezagutza kolektiboa ukatzea? Erran nahi baita, euskaldunak euskaraz hitz egiteko eskubidea onartuta duelarik ere, instituzio publikoen zerbitzuek euskaldunari euskaraz erantzuten ez dioten bakoitzean euskalduna ukatuz diskriminatu egiten dutela. Honen errannahia garbia da: euskara ez dagoela Euskal Herriko kolektiboaren ongi amankomun bezala onarturik.

Gure egunkarietan berri arrunta gertatzen da irakurtzen dugularik honelako edo halako tokian leihaketa publikoan euskara eskatu delako leihaketa inpugnaturik gertatu dela. Arrazoiak: euskaraz ez dakiena diskriminatzen omen da. Baina, eman berri dugun adibidea kontutan, ezin al da erran, zerbitzu publikorako euskaraz ez dakiena hautatzen den bakoitzean euskaldunen kolektiboa diskriminatzen dela? Halere, diferentziak nabarmenak dira bi kasuetan. Lehenean, banako bakar bat diskriminatzen da, eta gainera edozein profesiotan diskriminatu. Erran nahi baita, injinerutza-zerbitzu bat betetze-ko leihatzen bada, injineru-formazioa ez duen oro lanpostu horretarako diskriminaturik gertatzen dela. Baina, diskriminazio hori onuragarri da egin

behar den zerbitzurako. Bigarrean, ordea, giza kolektibo bati zor zaion zerbitzu bera diskriminatzen da, hots, kolektibo baten ongi amankomuna zapuzten da. Halere, azken diskriminazio hau dela eta salaketa egiten baduzu inongo jujeak ez dizu arrazoirik emanen; aldiz, lehenei beti beren alde jartzen diete arrazoia.

Ondorioa berez doa: Estatu-nazioak autonomi estatutuaren aroan ere euskarazko kulturari ez dio onartzen ezagutza kolektiborik edo eta ongi amankomunaren erakundetzerik. Arrazoitze honen hastapeneko hitzetara itzuliz, euskarari arnasa hartzea baimendu zaionean janaritza ukatzen jarraitzen zaio. Beste hitz batzurekin, euskarari eskubidea onartzen zaionean (banako alorrekoa dela erran behar da), beharrezkotasuna (ongi amankomun bezala erakundeturik egon behar lukeena) debekatzen zaio. Gaur egun euskarazko kulturak bizi duen arazorik handiena bada, oraingoz ere, euskara ongi amankomun bezala erakundeturik ez egotea da. Askok uste badu ere euskarak erakundetze alorrean baduela beharrezko guztia, bere aburua ustela gertatzen da.

Europa berria eta euskarazko kultura

Europa berriaren erakundetzetik ez ote zaigu helduko falta dugun hori? Bada dugunaren mugak agertzen diren bakoitzean Europa berriari falta dugunaren emaitza atribuitzeko joerarik duenik. Horrela erran ohi da, Europak osatuko gaitu, bizkortuko

gaitu, beteko gaitu. Zer erran dezakegu Europa berriak hizkuntz kulturaz egindakoaren arabera euskarazko kulturarentzat bertatik jarrai daitekeen geroaz?

Euskarazko kulturarentzat Europa berriaren eraikuntzatik datozen berriak, txarrak dira. Ikus dezagun horren zergatia.

Europako Parlamentuaren hastapenetik beretik bere hizkuntz kulturen arazoa abordatu izan da. Abordatze horretan erabilitako terminoak ondoko hauek izan dira: lehenik eta behin konstatazio bat, "egia da hizkuntz kulturen egungo egoera Babeleko dorrearena dela, pairaezinezkoa, alegia. Baina, hizkuntza bizien artetik bat edo bakar batzu hautatzea guztiok horretara plegatzeko, diskriminazio onartezina litzateke.³ Zer aterabide gelditzen den orduan? Dugun status quo hori salba dezagun. Norena? Estatu-nazioen hizkuntzena, noski. Honela Europako Komunitateko partaide guztiei hauxe gomendatzen zaie, Europako Estatu-nazio desberdinetako hizkuntzak, elkarrekin, bakoitzak bere Herrian zabalkundea bultzatuaz, promozionatzen saiatzeko.⁴

Erabaki honen gakoa ingelesak gainerako hizkuntzei kausitzen dien ezin geldituzko erosioan datza. Izan ere ingelesa denok dakigunez merkatal hizkuntza bakar gertatzen ari da, eta aldi berean kultur eliteen hizkuntza ere bai.

Erosio berari muga jarri nahirik, Europako Parlamentuak ESPE-RANTOaren ideia ere (hizkuntz

artifizial neutroa) planteatu izan du. Europako Parlamentuko erabaki batek hauxe dio: "RECOMMANDÉ à la Commission, au Conseil, et aux États membres d'étudier à fond le caractère propédeutique de l'Espéranto ainsi que son introduction dans les écoles de la Communauté, non comme une fin en soi, mais comme un moyen permettant d'apprendre plus facilement les langues vivantes".⁵ (Parlamentuko Hizkuntz Batzordeari, Kontseiluari, Estatu bazkideei Esperantoaren izaera propedeutikoa sakonki ikastea eta Komunitateko eskoletan sarreraztea gomendatzen zaie, ez berezko xede bezala, hizkuntza biziak errezago ikastea baimenduko duen bitarteko bat bezala baizik).

Guzti honek gogoeta bat merezi du gure arrenkuraren ikuspegitik eramanez. Europako Komunitatea instituzio politiko bezala bermatzen doan heinean, Estatu-nazioa eta bere betiko planteamenduak erlatibizatzen hasi dira. Hizkuntz kulturaren gaian nazio etnikoen hizkuntz-kulturekiko hain portaera autoritarioa ukan duen Estatu-nazioa, Europako Komunitate politikoaren bilakaera orduan bere arrazoiketa propioen presuner atzematen da: ez dago Europako hizkuntza bakar baterako bidea hartzeko prest. Eta bai, hori zen bere arrazoiaren logika. Estatu-nazioan hizkuntza bakarraren alde erabilitako argudio guztiek balio dute Europako Elkarrekin Bateratuarentzat arrazoizko hura nahi bada. Baina, Estatu-nazioaren arrazoizko hura ez zen Arrazoia, noski.

Alde batetik bada kontradikzioa konstatazio hau, eta bestetik, hartu den bideak adierazten duen aurreranzko ihesa. Izan ere, logikoa, Estatu-nazioen hizkuntzentzat erabakitzen dena nazio etnikoen hizkuntzentzat onar zitekeen, baina, azken hauekiko ez dago pietaterik, ez dago inolako kontsideraziorik, betikoan jarraitzen da. Europako Komunitateko Estatu-nazioek jazarri dituzten nazio etnikoen hizkuntz kulturekiko erreparazio historiko bat deklaratuaz gero, euren heinean emanen ez dituzteneino euskarazko kulturak diskriminazio instituzionala pairatzen jarraituko du. Ez da egia bada Europa berriak hutsunea beteko digunik. Gure maluran oraino afrontatu beharko dugun arerio berri bat egituratzen ari zaizkigu.

Aterabideak? Estatu-nazioaren lehentasunak ezabatzetik igarotzen dira. Europa berriak bere hizkuntz kultura desberdinetako kolektiboekin zuzeneko hitzarmen libroa eraiki beharko du. Hizkuntz kultura batek, handia ala tipia izan, beste hizkuntz kultura edozeinen mailako tratamendu instituzionala balio bait du. Ondotik hizkuntz kultura kolektibo bakoitzaren barne planteamenduak datoz. Guk euskarazko kulturari dagokionean, Estatu-nazio ereduaren, Estatu-nazio autonomi estatutu emailearen eta Europa berriaren Instituzio politikoaren eskaintza ikusirik, gure iraupena taiutu beharra dugu.

Bi ardatzen gainean eraiki behar dugu: euskarazko kultura ongi amankomun bezala gizarte-erakunde guztietan zerbitzatuko duen estatus-

-egoera lortuz, eta erakundetze hori lortzeko bidean bezala lortu ondoko egoeran jarraituki dinamizatzaile izanen den euskarazko kulturaren mugimendu soziala atxekiaz.

Halere, azken esaldi honek norbait aztora dezake. Nola uler daiteke aldi berean euskarazko kultura erakunde-estatusetan eta mugimendu sozial jarraituan? Soziologiako ideia guti bat duen edozeinek bait daki, erakundeturiko fenomeno eta bere mugimendu soziala bi aldi bereiztutan bakarrik eman daitezkeela. Bata eta bestea kontrajarriak gertatzen bait dira. Guk orduan absurdu bat proposatzen ote dugu? Ez da hori! Guk proposaturikoak, gaurko munduan hizkuntz kulturek daramaten gatazkan, bizirik irauten jarraitzeko, beti mugimendu sozialean eratu beharra azpimarratzen du. Edozein Estatu-nazioren hizkuntz kulturarentzat irauten jarraitzeko mugimendu sozialean eratu beharra kondizio gertatzen ari bada, euskarazko kulturak beharrezkotasun-estatusa lortu gabe duenean, are du mugimendu sozialean eratu behar hori justifikatuago.

Erne bada, euskarazko kultura beste zazpi mila urtez bizirik ikusi nahi bada. Euskarazko kulturari zola eman dioten bizimolde historikoak aldaketa sakonean sarturik daude, eta ez da aski hiriko eta industriako bizimoldeak idatziari emandako erakundeetan errotzen saiatzea. Gure tribulazioa hain zuzen honetan datza, hots, alor horiek bere garaian ez ditugula okupatu, eta atzerapen handiz, azkar eta presaka gabiltzala galdu denbora berdindu nahirik. Aurrera, noski, eginkizun

horretan! Baina, ohar gaitezen deabru-erritmoa duten gizarte historikoetan sartuta gaudela, eta etengabe alor berriak irekitzen zaizkiola edozein hizkuntz kulturari. Horietan garaian garaiz sartzen ez dena galbidean amilduko da. Inprentaren aurrean, euskarak ahozketasunetik ateratzeko zuen beharra hain ongi intuitu zuen Etxeparek, "euskara jalgi hadi plazara", erran izan bazigun, nik neuk euskarari informatikak eta audio-bideoaren teknikek ireki dizkiguten plaza berrietara osotasunez eta salto-brinkoka jalgitzeko eskaria eginen nioke.

Euskarazko kulturari betetzeko gelditzen zaizkion eginbeharrak ez ote dira larriegiak? Amildegi irteera gabea ez ote dago euskarazko kultura ehortzia? Euskarazko kultura bizi dugun kolektibo sozialaren apreziazio soilaren baitan dago erantzuna. Kondizio materialak kondizio, guk aterabidea egiteko ausardia badugu, lortuko dugu. Aldiz gure entseia, simulazio bat besterik ez bada, gizaki-emazteki triste izanen gara. Ez dezagun euskarazko kultura bizimodu alorreko arrazoiz estal. Euskarazko kulturak ez du bera beste arrazoirik behar. Euskarazko kulturaren arrazoa plazaratzean euskaldunen gainerako arrazoi guztiak makur daitezela. Gaurko europar gizarteak noizbait gizaki-emaztekien kondiziora itzultzen badira euskarazko kultura altxor preziagarri dela jabetuko dira. Euskarazko kulturak bakarrik ematen bait digu antzinako indoeuropear gizaki-emaztekien berri. Eta gizaki-emaztekiok ezin dugu memoria kolektibo hura hondaratzen utzi.

Halere, orainarteko oihaneko legea-
rekin Europa berria kudeatzen bada,
Estatu-nazioaren babesean bilakatzen
joan diren europar hizkuntz kulturak
galzorian ikusiko dira. Eta nork
iraunen du? Erne eta ohartun egonez

mugimendu jarraituan definituko
denak. Hau izan dadila euskarazko
kulturaren jarrera. Kosta ahala kosta,
argiturik dabilenaren indarrarekin,
geurea dena atzekiaz aurrera!

Oharrak

- 1 Ikus, *Rapport de Grégoire à la Convention Nationale*, sarrera eta oharrak, A. Gazier-ek idatziak dira, Paris-en, Pedone argitaletxea, 1880, berrargitalpena berriz Ginebran, Stalkine argitaletxea, 1969.
- 2 Ikus, *Rapport de Grégoire à la Convention Nationale*, sarrera eta oharrak, A. Gazier-ek idatziak dira, Paris-en, Pedone argitaletxea, 1880, berrargitalpena berriz Ginebran, Stalkine argitaletxea, 1969.
- 3 Ikus, dokumentuak 1-331/79, Coppieters-en proposamena, eta 54,563 1980ko uztailaren 18koa, avis Patterson. Era berean, 1-306/82 dokumentuak, Nyborg txostena eta 1982ko urriaren 14eko Erabakiari buruzkoa, J.O.C. C 292 zb. 96 orrialdea, 82-11-8
- 4 Ikus Luc Bayer de Ryke-ren txostena, 1-83/84 dokumentua, era berean 1984 eko apirilaren 13an onartutako erabakia (J.O.C. 84-5-14 koa, c 127 zb. 139 eta hurr. orrialdeak.)
- 5 Estatu partaideetan atzerritar hizkuntzen irakasketa hobetzeko xedearekin egindako Erabaki-proposamena. Ikus, Chiti-Batelli, *Communication internationale et avenir des langues et des parlars en Europe*, Presses d'Europe argitaletxea, Nizan, 1987, 160. orrialdea.